



Jai batzuk hasi, besteak bukatu

ALTZO ▶ Atzo hasi ziren San Inazio jaiak; gaur izango da zaindariaren egun handia; txirindulariak eta bertsolariak izango dira

VILLABONA ▶ Iritsi dira azkenera Santio jaiak; amaiera emateko, erroskila erraustuko dute gauerdian plazan ▶ 5



Altzo. Atzo eguerdian txakolin dastaketa izan zuten altzotarrek; gaur, San Inazio zaindariaren egun handia, meza, jubilatuen hamaiketakoa, txirindulari proba, herri apustua, musika, bertsoa, dantza... NOELIA LATABURU



Villabona. Haurren festa izan zen atzo goizean Errebote plazan Santio jaietako azken aurreko egunean. N.LATABURU



Villabona. Erraldoi eta buruhandekin batera ibili ziren Tolosako dultzainariak atzo goizean musika eta giroa jartzen. N.LATABURU

ABUZTUAN HITZA-RIK EZ, OPORRENGATIK

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ez da kaleratuko abuztu osoan zehar, langileen oporrak direla eta. Hurrengo zenbakia irailaren 2an izango duzue eskuartean. Webgunea ez da aktualizatuko, baina eskaintzen dituen zerbitzuak hor izango dira.

TOLOSA ▶

Lontxo-Nazabal, berriro irabazle paleta txapelketan Berazubín

Zabaleta-Urdanpilletari irabazi diete; bihartik aurrera, 'Txapela' txapelketa ▶ 4

honekin ziber ileapaindegia 943 67 22 44
Santa Maria plaza, 1
20400 TOLOSA

ASTELEHENA :
15:00-20:00

ASTEARTEA-OSTEGUNA:
9:00-13:00
15:00-20:00

OSTIRALA :
9:00-20:00
(egun osoa irekita)

LARUNBATA :
8:00-13:00

Abuztuan ere gure ohiko ordutegiarekin
EZ MOZTU ! zatoz guregana

TOLOSALDEKOHITZA.
INFO ▶Nolako Tolosa
nahi duzu?

Merkatalguneak irabazirik ez luke ekarriko eskualdera (agian Tolosako obren zinegotziarentzat eta lursailen jabearentzat zer bait bai). Kanpotik etorritako enpresek aterako lukete etekin guztia. *merkealdi* eta *aisialdi*aren aitzakipean munduko beste hiri bat bihurtuko litzateke Tolosa, horrelako komertzioetan erostera bultzatu, gazteek biolentzia eta konpetibitatez beteriko bideojokoetan joka dezatela, fox eta warnerrek egindako superproduzioak ikusi, Zarak markatzen digun moda jantzi, los40n entzuten diren abestiak dantzatu... kontsumitu, kontsumitu, kontsumitu... etekina: larunbat arratsaldean pasa dugula bertan. Galera: nortasuna. Eta inguruko dendariei ekarriko lizkieken diru galeretaz...

ESKUALDEKOA ▶ TOLOSALDEA

UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

Ez bide ez gorri



Hautsak harrotu ditu Tolosako bidegorriak. Egiterakoan baino gehiago martxan jarritakoan. Bilatu diot antzekotasunik bere garaian Parte Zaharra oinezkoentzako jarri zenean sortutako iskanbilarekin.

Bidegorriaren aurkako argudio ugari entzun dugu. Gehiegizko eta alferrikako gastua batzuentzat. Zirkulaziorik azkarrena, alegia kotxeena, mantsotzen duen proiektua omen da beste batzuentzat. Larrialdi zerbitzuen pasabidean oztopo onartezina kontsideratzen duenik ere agertu da.

Ikuspegi kontua izango da. Noski, aurreko iriztietan ez daude guztiak. Bide gorria erabiltzen dugunon edo alde gaudenon ahotsa samatu dut faltan. Zalantzarik ez daukat bidegorriak hurbildu egin dituela Tolosako zentroa eta auzoak. Herri barruan kotxerik ez erabiltzeko alternatiba

ederra da, kargatuta ibili behar denean ere. Esango nuke, oraintxe bertan neronek kaleko edozein puntutara hurbiltzeko modurik azkarrena dudala bizikletarena. Eta merkeena. Eta garbiena.

Arazoa bidegorrian baino, kotxearen gehiegizko erabileran ikusten dut nik. Lekua dago eska-sean eta kotxe gehiegi. Lekuarena bistan dago. Kotxeak berriz, Tolosako lurzoruan sartu ezinezko kotxe kopurua dago zentsatuta. Horri erantsi ingurutik datozenak. Noizbait konbentzitu behar dugu, Tolosako erdigunean behintzat, ezin direla uztartu kotxeentzako nahi adina aparkaleku izatea eta bertatik azkar pasa nahi izatea.

Orriotan albistea irakurri eta lasterrera kendu du Udalak Rondilla kaleko zatia. Agian trazatua ez da egokiena izan. Beti ez da aurrenekoan asmatzen. Hala ere, nik dakidala ez du inork alternatiba hoberik aurkeztu. Errezenera jo dugu. Dagoenari akatsak bilatzen jaiok gu, baina gabezien konponbidea jartzeko ezgai.

Estreinatua genuen erabat gorri ez zen bidegorria. Orain ez dakit bide etenak bide izenik ere merezi duen.



JOXEMI SAIZAR

ASTEKO IRUDIA ▶



Pablo Gorosabel kalea, bidegorririk gabe ostegunetik aurrera

Erredakzioa ▶ Ostegunetik aurrera zuten bidegorria Tolosako Pablo Gorosabel edo Rondilla kaletik. Ekainaren 4ean udal agintariak inauguratu zutenetik uztailaren 28rainoko bizitza izan du bidegorriaren zati horrek. Hasiera hasieratik bidegorriak onarpen zabal izan du herritarren artean, baina Rondilla kaleko zatiak eztabai-

da handiak piztu ditu, batez ere Alde Zaharreko dendari eta bizilagunen aldetik, trafiko handieneko kalea delako eta errepidea oso estua gelditzen zenez, oztopo handiak eta ilara luzeak sortzen zirelako. Orain Udalak, dendariak eta bizilagunek «adostasun osoz» erabaki dute kentzea eta aurrerago erabakiko dute non jarri.

HEMEROTEKA ▶

Ez gara ardiak

(...) Espainiarrek zezen beltza erakusten dute autoetan, kataluniarrek bertako astoa, eta hemen, guk ere zer bait behar dugula iriztita, ardiak itsastea otu zaie batzuei. Ideia izan eta zabaldu egin dute, eta gero eta arrakastatsua goa da, gainera. Ardiak latxak euro batean salduta aterako duten dirua egitasmo euskaltzaleak laguntzera bideratuko dutela ere nabarmendu dute asmatzaileek, eta ekimenari egokia iriztita, gero eta lagun gehiago ari da autoetan ardiak paratzen. Itsutu garelakoan nago. Euskaldunon nortasuna islatuko duen animalia aukeratzeko hasi, eta norbait ardia hautatzea bururatu zaio. Mundua animaliaz beteta dago. Horoskopo txinatarri begiratu besterik ez dago: arratoia, idia, herensugea, zaldia, untzia, sugea, oilarra, eta beste dozenaka aukera ditugu inguruan begira hasita. Eta ardi aukeratu behar: artaldean ibili eta otzana eta esanekoa den animalia. Hori euskaldunon nortasunaren ikur moduan autoetan saldoka jartzen hasi bagara, erotu egin gara, du-darrik gabe. Besteen gezurrak sinesten hasita, jende ankerra eta basatia, maltzurak, lizunak, gaiztoak, mamirik gabeko gortzak, otsoak. Nahi duzue izango gara, eta baita are gehiago ere. Baina ardiak ez behintzat!

GARI BERSALUZE ('BERRIA')

Ardiak eta astoak

(...) Irribarre egin dut gaur (uztailak 26) *Ez gara ardiak* izenekoa irakurri diodanean. Ez nago batere ados bertan esaten duena Euskaldunak ardiak bezalakoak gara, eta gure etorkizuna horrelakoak izaten jarraitzean dagoelakoan nago. Ona da katalanen aberea astoa izatea eta gurea ardia. Berdin-berdin zait espainolena zezena den. Ardi apala eta bihotz onekoa da, maitagarria. Egia da taldean ibili ohi dela eta ergeltasunaren ikurtzat jotzen dela, baina horiek gizakion kontuak dira. Ardi benetan da inbidia: sortzez nahasia da, horrek dakarkion gogortasun eta iraukortasunarekin; beti mintzo da beka, inoiz beste inoren mintzamolderik bereganatu gabe; pazientzia bera baino hobeagoa astoa bakarrak delakoan nago eta, baketsua eta onbera da guztiz. Eta lagun ezin hobea dauka: txakurra. Otso, lehoi eta zezen asko dagoen garaietan ardiak aurrera egiten daki, itxuraz burumakur belarra jaten, baina izaera jatorraren iraukortasuna bermatzen. Ardi burugogorra izaten jarraitu nahi dut.

AITOR ARANA ('BERRIA')

MINUTU ERDIAN ▶

Asier Arzallus, saskibaloiko Atletico EHU-era

KIROLA ▶ Asier Arzallus 22 urteko saskibaloia jokalaria leitzarra fitxatu du EBA Ligako Atletico EHUK. Aurreko astean HITZAK egindako elkarrizketan aukera hori aurreratu zuen. Pibotak 2,04 metro neurtzen ditu. Tolosan hasi zen jokatzeko eta 16 urte zituenetik TAU Baskonian aritu da, hasieran beheko mailatan eta azken bi urteak lehen taldean.

Abuztuan ere ekitaldi ugari Gau Giron

KULTURA ▶ Herenegun gauean izan zen uztailako Gau Giroko azken emanaldia. Jende dezente bildu zen plaza Berrian Musika Bandak eskainitako euskal doinuak entzutea. Abuztuan ere izango da zer ikusi eta entzun Tolosan: zinema emanaldiak hilaren 9an eta 10ean Amarozen eta Julia Leonen sefardi musika hilaren 26an plaza Berrian



Tolosako Musika Banda herenegungo kontzertua hasi aurretik. J.SAIZAR

Irregularitasunak Larrañaga kasuan

GIZARTEA ▶ Paco Larrañagari Filipinetan egindako epaiketak «prozesuaren berme guztiak» ez dituela betetzen azaldu du Amnistia Internacional-eko Koldo Caslak. Erakundeak ez du baloratzen Larrañaga errudun den ala ez, baina bere eskubideak defendatzeko behar diren akzio guztiak garatzea eskatzen du, orain arte «egin ez dena».

ESANA ▶



JUAN GORRITI
ESKULTOREA

«Aita oihanen zaindaria nuen; hark irakatsi zidan egurraren bihotza ez dela sekula erretzen»

DATUA ▶

128

taberna eta jatetxe.
Tolosan dagoen kopurua da. Eskualdeko beste hainbat herritako taberna eta jatetxe kopurua ere badugu: Villabonan 31, Ibarra 22, Zizurkilen 13, Anoetan 9, Asteasun 9, Alegian 8 eta Iruan 7.

PASADIZOA ▶

Tolosa-Reala. Ez dago oraindik zehaztuta futbol aurredeboraldi honetan Berazubini jokatu behar duten Tolosa eta Realaren arteko partidua noiz izango den. Hasieran uztailaren 30erako jarri zuten, gero abuztuaren 6an eta azkenean data segururik ez dago. Baina partidua jokatu da, hori bai.

ASIER BAKAIKOA ▶ TOLOSAKO UDALEKO KIROL TEKNIKARIA

«Igeriketak izan du jende gehien udako kanpainan, 150-200 lagun inguru»

Joxemi Saizar ▶ Iran, Maroko, Errumania, Ekuador, Txekia, Polonia... Ez da Nazio Batzuen bilkura, ez Tolosako Usabal kiroldegiko lanetan ari diren langileen jatorriak dira. Nazionalitate eta hizkuntza nahasketa nabari da inguruan Asier Bakaikoa kirol teknikariarekin egindako bisita azkarrean.

Tolosa Guggenheim deitzen diote batzuk honi.

Obra erraldoia da, ikusgarria eta oso garrantzitsua herriarentzat.

Aurten oporrik gabe.

Zaila izango da, honen jarraipena egin behar dudalako. Ea arratsalderen batzuk libratzen ditugun.

Eta irailaren hasieran inaugurazioa.

Lehen fasea amaituta egongo da: barruko eta kanpoko igerilekuak, hidromasajea, kirol pista, futbol zelaia eta ingurua, gimnasioak, saunak, aldagelak...

Eta gainontzekoa?

2006ko ekainean ofizialki, baina agian martxorako egon daiteke bukatuta. Beste kirol pista, arte martzialak, rokodromoa, squasch, padel, kinesis, solariua, kirol medikuntza zentroa, elkarteen gelak... doaz hor.

Zerbait gehiago?

Taberna-jatetxea beranduago egongo da prest, 2006ko abendurako edo.

Futbol zelaiaren ondokoarekin dago jende asko harrituta.

Baloiarekin jolas egiteko zelai txikiak dira.

Gaur egungo igerilekua eta kiroldegia noiz itxiko dira?

Hauk irekitakoan. Hala ere



JOXEMI SAIZAR

zerbaiterako behar direnean, erabiliko dira.

Eta urrian Abesbatza Lehiketa izango da.

Hala dirudi. Proba batzuk egin dituzte eta gustura gelditu dira. Dauden harmailekin eta behar direnean zabalitzen diren harmaila teleskopikoekin 900 lagunentzako lekua izango da.

Beste gai batera pasatuz. Nola dihoa uda kanpaina?

Programatutako kirol guztiak martxan jarri dira, jendearen erantzun ona izan delako. Igeriketan izango da jende gehiena, guztira 150-200 lagun, adin guztietakoak, 3 urtetik hasita. Tenisean ere jende asko izan da. Gero ludotekak hartu behar dira kontuan. Ez daude kanpainaren barruan, baina igerilekua eskaintzen diegu bere aktibitateak egiteko.

Pilotarietako eskola eskatzen dute.

Eskola badago, hitzarmena eginda dago. Elkarte guztiak ados jartzea falta da.

Berrikuntzarik izan al da?

Spinning jarri dugu. Eskalada ere bai. Gofa ere nahiko berria da, nahiz eta Andoainen egin. Hipika eta piraguismoa herriaren bertan egiteko aukera ematen dugu. Eskaeren arabera eskaintza egiten dugu. Eta Ibarrarekin batera. Hori oso inportantea da.

Beteranoen Munduko Txapelketako probarik ez da izango azkenean.

Ez. Berazubi stadiuma eskatu zuten jaurtiketa probak egiteko, baina ondoren zelaia nola geldituko zen ez zuen inork bermatzen eta belarra orain-txe landatu berri dute.

UDA KANPAINA

«Hipika eta piraguismoa herriaren bertan eskaintzea eta Ibarrarekin aritzea oso garrantzitsua da»

KIROLDEGIA

«Bigarren fasea 2006ko ekainean amaituko da ofizialki, baina agian martxorako egon daiteke bukatuta»

ALEGIA ▶ AHT



Gaur amaituko da akanpada

Julen Goikoetxea ▶ AHTren aurkako X. Akanpada azken eguna du gaurkoa trikitia, bazkaria eta asanbladarekin. Atzokoa, ekitaldiz jositako eguna izan zen. Goizean erraustegien inguruko hitzaldi bat izan zen entzungai. Eguerditik aurrera festa giroan ibili ziren. Bazkalostean, haurren festa izan zen eta gauean kontzertuak. J.G.

TOLOSA ▶ FUTBOLA



Reala kirolzaletasuna bulkatuz

Jaione Astibia ▶ Atzo eguerdiarte Real Tolosaldeko umeekin, jostatu bidenabar, kirola eginez aritu zen. Plaza Berrian jarri zuten jolas parkean, hainbat kirol egiteko aukera izan zuten bertara bildu zirenek, futbola, futbol-tenisa, badminton-a, zehaztasun-jolasak, baita eskulanak ere, Realeko ikurra margotuz. J. A.

TOLOSA ▶ PALETA TXAPELKETA

Lontxo-Nazabal izan dira irabazle berriro

30-25 irabazi zieten Zabaleta-Urdanpilletari finalean



Irabazlea txapelekin eta zuriz beste finalistak. J.SAIZAR

ere lau bikote hauek izan ziren finalerdietan, baina orduan finalerdietan jokatu zuten aurretengo finalistak eta finalean Lontxo-Nazabalek irabazi zieten Maiza anaiei (Apeztegiak ezin izan zuen jokatu). Aurreko zazpi urteetan Zabaleta-Urdanpilleta izan ziren irabazleak.

JOXEMI SAIZAR

Lontxo lizartzarra eta Nazabal elduaindarrak izan dira berriro Tolosa CFren XXXVII. Paleta Txapelketaren irabazleak, Berazubiko frontoian herenegun jokaturako finalean Zabaleta tolosarrari eta Urdanpilleta alegiarrari 30-25 irabazi ondoren.

Partidua oso lehiatua izan zen lehen erdialdean, 8, 11 eta 17na berdinketan izanez. Handik aurrera irabazleak aurreratu egin ziren 30. tantora iritsi arte. Hirugarren lekua Goitia-Otermin amezketarrek lortu zuten, Apeztegia-Maiza ibartarrei 30-25 irabazi ondoren. Iaz

Bihartik aurrera, 'Txapela'

Bihar, astelehena, hasiko da Berazubini Miguel Aldalur *Txapela*-ren omenez urtero jokatzeko duten paleta txapelketa. Garces-Urdanpilleta Lakunza-Goikoetxearen aurka eta Yugueros-Aldazabal Zabaleta-Ruforen aurka ariko dira bihar. Etzi, asteartea, Balerdi-Artola Otermin-Ruiz de Egilazaren aurka eta Agirre-P. Artola Eizmendiarandien aurka ariko dira. Asteazkenea, abuztuak 3, finalerdiak izango dira aurreko bi egunetako irabazleen artean, eta ostiralean, hilak 5, finala eta ondorengo afaria. Partiduak 19:00etan hasiko dira Berazubi estadioetako frontoian.

TOLOSA ▶

Tolosako aurreneko babarrunak iritsi dira jada

Baserritarrek euri falta dute kezka nagusi, uzta askoz ere beranduago dator eta

PABLO ALBERDI

Atzo giro freskoxeagoa bazeagoen ere, euri falta izan zen azokara bertaratu zirenen eta baserritarren arteko hizpidea: dagoeneko merkaturuan egon beharko luketen produktuak, atzeratuta omen datoz lehortearren eraginez eta.

Baina hala ere, atzokoa, aurreneko leka horiak salgai jarri zituzten, kiloko 6 eurotan. Bestela, tenore honetako produktu fresko eta bikainak erosgai izan ziren postuetan. Landareetan, berriz, bigarren astez, orburu landareak jarri zituzten salgai, udazken edo neguan fruituak biltzekotan, dagonekoa aldatu beharrekoak. Aitatzekoa da, gainera, landare hauek urte batzuetako bizia dutenez, etekin ona atera dakiekeela.

Eta aziendei dagokienaz, akuriak saltzen zituzten postua izan zen berezitasun, besteak beste, untxi haztegiatan gaixotasun infekzioen arriskuen semafora modura erabiltzen dutena.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Orburu-landareak	0,60	-
Surfinia	2,80	-
Leka landarea	0,35	0,40
Aza kizkurra	6,00	-

Bertako produktuak

Onddoak	15,00	20,00
Akuriak	9,00	-
Tomatea	2,00	4,50
Kalabaza	3,00	-

Produktu ekologikoak

Tipula sorta	1,75	2,00
Lebuga	1,00	-
Ahuntz gazta	3,00	-

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

NATURHOUSE
Dietetika eta nutrizioa
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Nagusia, 43 • Billabona • Tel.: 943 69 43 31

Irukide
Inmobiliaria
Ondo pasa
Jaietan!
Emio-bea kalea, 2
20150 Villabona
Tel.: 943 69 36 82
Faxa.: 943 69 36 82
Emaila: inmobiliaria@irukide.com
www.irukide.com

Nahikide
Gora Santioak!
Tel.: 943 69 64 84
Faxa: 943 69 33 59
Larrea auzoa, 8
20150 BILLABONA

BRONTXILLO
Harategia
Arraindegia
Tel.: 943696823
Santio, 4
Villabona
Gora Santio Jaik!

JANARIDENDA
PILAR
Larrea, 9 • Villabona
Tel.: 675 713637

SANTIOAK ETA SANINAZIOAK ▶

Hasi ala amaitu, alai!

Santioak gaur amaituko dira Villabonan erroskilaren errausketarekin; Altzon gaur egun handia ospatuko dute



Eguerdi partean txakoli dastaketa izan zuten altzotarrek; ondoren, toka txapelketa. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Uztailaren 31, *Inazio, gure patro handia...* San Inazio Eguna handia da gaur Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan. Alto ez da salbuespen eta festa kolorez jantzi da gaurko egunaren atarian. Musika, meza, hamaiketakoa, kirolak, bertolariak... makina bat ekitaldi izango da, denon gozamenerako.

Batzuk hasi, beste batzuk, al-diz, amaitu. Villabonak bere Santio jaietako azken eguna biziko du gaur, erroskilaren errausketarekin datorren urtera arte agurtuko direnak. Astebetez hamaika bizipen, ekitaldi mordoak, bisitari ugari eta, batik batik, alaitasun izan da nagusi herriko kaleetan barrena. Adin guztietakoek izan dute ondo igarotzeko aukera.

Atzokoa ere egun borobila izan zen bi herrietan, eguraldia lagun. Altzotarrek goizean goiz hasi ziren festa giroan murgildurik. Txakoli dastaketa eta toka txapelketaren ostean, plater hausketan aritu ziren. Villa-



Umeez ederki igaro zuten goiza plazako jokoekin. NOELIA LATABURU

OKINDEGIA
kixubi
Gozotegia eta kafetegia
Erribea, 3 20150 BILLABONA 0 943 69 33 75
Festak ondo pasa!

AiNHOA
ILEAPAINDEGIA
ZURE ILEAPAINDEGIA festa zoriontsuak pasa!
Tel.: 943 69 34 21 • Mug.: 629 349 624
Etxe-ondo auzoa 7 • BILLABONA

Janari Denda
Pepi
Ondo pasa Santiotan!
Etxeko Barazki eta Fruituak
Berria, 56
20150 BILLABONA
Tel. 943 69 16 38

GOIATZ MARGOAK OROKORREAN
INDUSTRIALA - FATXADAK - HARRIA GARBITZEKO...
Errota kalea, 6 - 2.ezk • BILLABONA
Tel.: 943 69 31 01 • faxa: 943 69 31 01 • mug.: 609 14 37 13

EGITARAUA ▶ GAUR

ALTZO

San Inazio Eguna.
09:00. Goiz eresia herriko txistulariekin.
10:00. Meza nagusia.
Ondoren, herriko trikitilari eta txistulariak eta jarraian jubilatuen hamaiketakoa herriko plazan.
11:30. Erlojuaren aurka afizionatu mailako birrindularien XIV. Altzoko Igoera (Calcinor saria).
18:30. Herritarren apustua.
Ondoren, Juan Mari Beltran.
22:30. Bertso jaialdia Amuriza, Arzallus, Irazu, Lujanbio, Peñagarikano eta Sorozabal bertolariarekin.
24:00. Trikitzioa taldearekin dantzaldia goizalderarte.

VILLABONA

09:00. Diana-kalejira Villabonako Santio Txistulari taldearekin.
11:30. Hazparne-Villabona errebote partida plazan.
14:30. Pilotariekin bazkaria Arantzabi jatebtxean.
18:00. Herri kirol erakustaldia plazan: harri-jasotzaileak, aizkolariak eta tronzalariak.
Ondoren, idia, aberea eta Amasa-Villabonako gazte talde bat elkarren aurka arituko dira lehian.
20:30. Dantzaldia plazan Egan taldearekin.
23:00. Dantzaldia plazan Egan taldearekin.
24:00. Erroskilaren errausketa plazan.

bonan haurren eguna izan zen. Adin ezberdineko emakumeentzako jolas parekideak antolatatu zituzten lehen urtez eta «emakumeak ere aukera dugunean parte hartzeko prest gaudela» erakutsi nahi izan

dute ekimen honen bitartez. Festa batzuei ongietorria eta besteei agurra eman behar diegu hila honetan. Hitzak ere agur esango du irailera arte. Bien bitartean, ondo igaro uda gurean zein kanpoan.

Er dezala jakin nire nagusiak
"OPORRETARA NOA EROSKI BIDAIAK-EKIN"
(Naria, Eroski Bidaiak ez den bidaiak-erantzutza baxeko langilea...)

Onar ezazu.
Ez duzu ezer hobirik aurkituko. Beharrezkoak aldi batera utzi eta zurean prezioak onak eskaintzen dituzten agenteak bilatu gero.
Ezazu EROSKI Bidaiak-ora eta hasi zok zok.

Salou	375€	Oraindik ondo prestatuta dago
<small>1. Salouren 200. Urte. 8 egun / 7 gau. Baita 1000€-ko zozketa. Herriko-erria.</small>		
Benidorm	375€	Oraindik ondo prestatuta dago
<small>Benidormen 200. Urte. 8 egun / 7 gau. Baita 1000€-ko zozketa. Herriko-erria.</small>		
Andaluzia	435€	Oraindik ondo prestatuta dago
<small>Andaluzian 200. Urte. 8 egun / 7 gau. Baita 1000€-ko zozketa. Herriko-erria.</small>		
Tenerife	389€	Oraindik ondo prestatuta dago
<small>Tenerifean 200. Urte. 8 egun / 7 gau. Baita 1000€-ko zozketa. Herriko-erria.</small>		
Mallorca	399€	Oraindik ondo prestatuta dago
<small>Mallorcaren 200. Urte. 8 egun / 7 gau. Baita 1000€-ko zozketa. Herriko-erria.</small>		
Tunisia	483€	Oraindik ondo prestatuta dago
<small>Tunisian 200. Urte. 8 egun / 7 gau. Baita 1000€-ko zozketa. Herriko-erria.</small>		
Karibe	996€	Oraindik ondo prestatuta dago
<small>Karibearen 200. Urte. 8 egun / 7 gau. Baita 1000€-ko zozketa. Herriko-erria.</small>		

EROSKI bidaiak
mereri duzu

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agenda. Abuztuaren zehar Tolosaldeko eta Leizaldeko hainbat herritan jaiak izango dituzte. HITZAK jai horien egitarauak jarriko ditu bere webguneko agenda atalean. Egin bisita, beraz, jaietara joan aurretik. Halaber, beste hainbat zerbitzu ere eskainiko ditu webgunek.

FUTBOLA ▶

JULEN GOIKOETXEA

Eskualdeko taldeetan hasi arren, urte mordoan darabate gazte hauek etxetik kanpoko taldeetan jokatzeko. 2.B eta 3. mailetakoin hainbat taldeetan ari dira futboleko Ekhi Sarasibar, Hodei Etxezarreta, Ander Avellaneda eta Iker Gabarain tolosarrak, Ander Usandizaga asteasuarra eta Jon Altuna ibartarra.

Duela 8-10 urte Tolosa taldearekin jokatzeko ikusten genituen haur haiek, orduko ilusio berarekin jarraitu dute lanean eta gaur egun, punta-puntan dauden taldeetan ari dira eskualdeko gazte hauek.

Baina ez dira goi mailan ari diren bakarrak. Azkenaldian Liverpoolerako izar bilakatu den Xabi Alonsoren izena dator kio burura edonori; edota Realean ari diren Mikel Alonso eta Gari Uranga. Baina badira beste hainbat taldeetan jokatzeko duten eskualdeko futbolariak.

- ▶ Xabi Alonso (Liverpool).
- ▶ Mikel Alonso, Igor Jauregi, Gari Uranga, Mikel Saizar (Reala).
- ▶ Zigor Aranalde (Carlisle United).
- ▶ Xabier Jauregi (Lorca).
- ▶ Jon Altuna (Barakaldo).
- ▶ Iker Gabarain, Endika Mendizabal (Real Union).
- ▶ Ander Avellaneda (Eibar).
- ▶ Ekhi Sarasibar, Ander Usandizaga, Hodei Etxezarreta (Beasain).

Futbola bidelagun hartuta

Eskualdetik kanpoko hainbat taldeetan jokatzeko ari diren bertako jokalariekin solasean aritu da HITZA; guztiak 2.B eta 3. mailetan ari dira jokatzeko

JON ALTUNA ▶ BARAKALDO (2.B MAILA)

«Futboletik bizitzea zorte handia da»



Jon Altunak 3. denboraldia egingo du aurtengo denboraldian. J.G. GOIKOETXEA

Hirugarren denboraldia bete du aurtengo denboraldian Jon Altuna ibartarra. Iaz ordainketekin izan zituzten arazoak ahaztuta dituela eta denboraldia hasteko gogotsu dagoela adierazi dio erdilaria HITZARI. «Aurreko denboraldia iragana da eta jada aurtengoari begira jarrita gara taldekideok, zuzendaritza berriarekin guztiak hobeto joango direlakoan». Aurtengoari begira, igoera fasean sartzea dute helburua eta hori lortzeko asmotan hasi ziren lanean hilaren 20an.

Oraingoan, futboleko jokatzeko bakarrak bizitzeko adina irabazten duela aitortu dio Altunak HITZARI. «Zorte handia da gaur egun futboletik jasotakoarekin bizi ahal izatea».

Tolosari buruz ere aritu zen solasean ibartarra. «Iazko igoeraren ondoren aurtengo gogorlan egin beharko dute. Talde ona eta orekatua osatu dute Esperientzia eta gazteen indarra nahastu dituzte eta horrek emaitza onak ekarriko ditu denbora asko baino lehen».

DATUAK ▶

Jaiotze data. Ibarra, 1980ko ekainaren 24ean. 25 urte.

Taldeak.

- ▶ Tolosa (7 denboraldi).
- ▶ Antiguoko (1).
- ▶ Logroñes (1).
- ▶ Aurrera Gasteiz (3).
- ▶ Barakaldo (3).

ANDER AVELLANEDA ▶ EIBAR B (3.MAILA)

«Tolosak ere mailari eutsiko dio, guk bezala»

«Maila mantentzea». Horixe da aurtengorako Eibar taldean ari den Ander Avellaneda tolosarrak denboraldiari begira jarri duen helburua. Eibarren egingo duen bigarren urtea izango da datorrena atzelari tolosarrentzat eta partidak jokatzeko hasteko gogoz dagoela dio. «Denboraldia Beasainen aurkako derbiarekin hasiko dugu eta bertan Tolosaldeko futbolariak daudenez gogo handia dut beraien aurka jokatzeko».

Aurrera begira, futboleko jokatzeko jarraitu nahi du, baina beti ere ikasketak zainduz. «Futbola *hobby* da niretzat eta bertatik bizi ahal izatea amets bat; horregatik etorkizunari begira ikasketak amaituta

utzi nahi ditut». Tolosa taldeari buruz ere eman zuen bere iritzia. «Maila mantentzeko arazorik ez diot ikusten. Multzo berean gaude eta bi taldeak 3. mailan geratuko gara eta espero dut».

DATUAK ▶

Jaiotze data. Tolosan, 1984ko urriaren 6an. 20 urte.

Taldeak.

- ▶ Tolosa (denboraldi 1).

- ▶ Reala (7).
- ▶ Pasaia (1).
- ▶ Real Union (urte erdia).
- ▶ Eibar (urte eta erdi).



Avellanedak aurtengo Eibar B-rekin bisitari gisa jokatu du Berazubín. J.G.

iragarki laburrak ▶

Haur zainzaileak. bereziak, adinekoak, hezitzaileak. Lanpostu libreak: jantokiak, haur eskolak. Informazioa doan 943 65 01 93 telefonora.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain,

Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituz gero.

Gidariak. Hurrengo deialdiak:

Donostia, Eusko Jaurlaritzan. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Peoiak, ofizioko langileak.

Lanpostu finkoak: igeltsuak, argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udalberako. 1.200 euroko soldata hilabetean. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan lortzeko aukera, 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

ANDER USANDIZAGA, EKHI SARASIBAR ETA HODEI ETXEZARRETA ▶ BEASAIN (3. MAILA)

«Aurten igoera daukagu helburutzat»

«Hobbya». Hori da hiru gazte hauentzat futbola. Ekhi Sarasibar eta Hodei Etxezarreta tolosarrek eta Ander Usandizaga asteasuarrak ez dute pentsatzen futboletik bizitzera helduko direnik. Ikasten eta lanean ari dira hiru gazte hauek eta hala ere, futbolari ordu mordoa eskaintzeko astia geratzen zaie. Beasain taldean ariko dira hirurak datorren urtean eta gogotsu daude denboraldiari ekiteko. «Hilaren 25ean hasi genuen aurrendenboraldia eta hasieratik garbi geratu da taldean giro bikaina dagoela», adierazi du Usandizagak.

Abuztuko azken asteburuan hasiko den denboraldiari begira helburu argi bat dutela esan du Sarasibarrek. «Aurten 2.B mailara igotzea dugu helburu eta horretarako lehen partidak topera aterako gara». Hiru-erik lehen urratsak eman zituzten Tolosari buruz ere galdera



Ander Usandizaga hegaleko jokalaria, Ekhi Sarasibar atzelaria eta Hodei Etxezarreta erdilaria. INIGO ASENSIO

egin die HITZAK. Etxezarretak adierazi duenez «talde oso polita du aurten. Iazko taldea

mantendu dute eta hainbat gazte igo dira beheko taldetik. Gauzak ondo egiten badituzte

ez dute arazorik izango lortu berri duten igoera kasualitatea ez dela izan erakusteko».

DATUAK ▶

EKHI SARASIBAR

Jaiotze data: Tolosa, 1983ko urriaren 19a. 21 urte.

Taldeak:

- ▶ Tolosa (denboraldi 1)
- ▶ Añorga (denboraldi 1)
- ▶ Reala (6)
- ▶ Beasain (aurten 4. denboraldia)

ANDER USANDIZAGA

Jaiotze data: Asteasu, 1983ko apirilaren 3a. 22 urte.

Taldeak:

- ▶ Tolosa (7)
- ▶ Reala (2) (UPVn utzita)
- ▶ Beasain (aurten 2. denboraldia)

HODEI ETXEZARRETA

Jaiotze data: Tolosa, 1986ko uztailaren 31. 19 urte.

Taldeak:

- ▶ Tolosa (3)
- ▶ Antiguoko (4)
- ▶ Beasain (aurten 1.a)

IKER GABARAIN ▶ REAL UNION (2.B MAILA)

«2. mailara igotzeko moduko taldea badugu»

«Iazkoa errepikatzea eta ahal bada hobetzea». Hori da Iker Gabarainek Real Unionekin beteko duen lehen denboraldi honi begira jarri duen helburua. Tolosar honek ibilbide luzea egin du Euskal Herri osoko hainbat taldeetan. Azken lau urteak Amurrioren igaro ondoren, bi urterako kontratua izenpetu berri du talde irundararekin hirugarren batekin luzatzeko aukera duelarik.

Pasa den astelehenean ekin zioten aurrendenboraldiari eta taldea «klusioz beterik» aurkitu duela adierazi dio HITZARI Gabarainek. «Denboraldia haste-ko gogotsu gaude; aurreko

denboraldikoaren ondoren taldeak gauza serioak egin ditza-ke». Izan ere, iaz, bigarren mailatik urrats batera geratu zen Real Union igoera faseko azken partidaren itxi baitzion atea Lorca taldeak. Beraz, bigarren

DATUAK ▶

Jaiotze data: Tolosa, 1977ko maiatzaren 21a. 28 urte.

Taldeak:

- ▶ Tolosa (5 denboraldi).
- ▶ Beasain (2).
- ▶ Alaves (2).
- ▶ Amurrio (4).
- ▶ Real Union (aurten 1.a).

mailara igotzeko helburuarekin ekin dio denboraldiari atzelari tolosarrek bere talde berriarekin.

Gaur egun futboletik bizi bada ere, etorkizun bati begira, ikasten hasteko asmoa du. «Futboletik bizitzea gauza ona da, baina etorkizunean beste zerbait egin beharko da eta horretan pentsatuta prestatzen ari naiz».

Azkenik, Tolosa taldeari buruz aritu zen hizketan Gabarain. «Taldeen sartu diren gazteek indar berezi bat emango diote taldeari eta, maila mantentzeko arazorik ez dutela izango iruditzen zait».



Iker Gabarain atzelari tolosarrek aurten jantziko du lehendabiziko aldiz Real Unionen elastikoa. JULEN GOIKOETXEA

urteurrena ▶



Luis Mari Gorosabel Aristegi
(heriotzaren 4. urteurrena)



EZ AGURRIK, GURE BIZITZAN ZAUDE
BETIRAKO. MAITE ZAITUGU.

Maite, Daniel, Aintzira, Aitor, Mikel, Amaia eta Mila.

EIBARREN, 2005eko uztailaren 31

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko uztailaren 31, inganda ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



BIHARKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. AHTren aurkako akanpada.
Aitzo-Villabona. Jaiak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia M. Elbarren 95. 112.
Tolosa. Etxebeste J.M. Gernikako Arbola 3. 943 65 10 40
Bihar
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Olarreaga J. Martin J. Iraola 10. 943 67 24 38.
Abuztuan
Gure webgunean begiratu.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Zorionak eta urte askoan Inigo zure urtebetetze egunean familiaren partetik. Jarraitu jator eta tinko orain arte bezala. Eutsi goiari!




URTE ASKOAN

Zorionak Boniati! Apaizaren potroak beti aurrera.



ZORIONAK BIKOTE!

Abuztuaren 2an 25 urte elkarrekin! Bazkari earr horren esperoan gai! Ongi pasa. Olatz eta Jokin.



URTE ASKOAN

tzaro Urkiri Jauregi (Alegia). Gaur 4 urte. Zorionak gure etxeko bikibuenari. Amonek eta aitona Martinen partetik.

URTE ASKOAN

Josune Alberdi (Berrobi). 16 egun 19 egiteko. Gogoratzen garena! Koadrilaren partetik.



ZORIONAK

Patxi eta Arantxa (Gaintza-Baliarrain). Zorionak zuen zilarrezko etzei egunean.



ZORIONAK

Anartz eta Aitziber (Amezketza-Baliarrain). Zorionak zuen ezkontzako lehen urtemugan.



URTE ASKOAN

Enet eta Iñaki. Zorionak!! Zure familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Esther Navas (Ibarra). Abuztuaren 4an urteak. Zorionak guraso, aitona, Kristina, Haimar eta osaben partez.



URTE ASKOAN

Eneko Arregi (Izaskun). Abuztuaren 3an 2 urte. Zorionak eta muxu bat. Gurasoak eta anaia Iosu.



URTE ASKOAN

Ainhoa Onsalo (Tolosa). Abuztuaren 2an 12 urte. Gurasoen partetik.

Isabel Artieda Imaz
IV.urteurrena Abuztuaren 2an

– Eguzki bat lurrazpian–
... eguzkiak berotzen duenean
gogokoa dut harrian eseri
eta zurekin hitz egitea
baliteke berandu izatea ordea
eta ez dakit nire hizkuntza
lurpean ulertzen den. (Lxiar Rozas)

MAITE ZAITUT, AMA